



2018

Amezketako Haur, Nerabe eta Gazteen Parte Hartze Zerbitzua.

2017-2018 ikasturteko ebaluazioa



**1.- HAUR, NERABEEN ETA GAZTE ATALEN BALORAZIOA:****HAURREN ATALA**

4-11 urte bitartean

Helburuak**1.- Haurren eskaintzan elkarlana garatu**

- Begirale ikastarokoekin eskaintza bereziak planifikatu eta garatu.
- Guraso elkartekoekin elkarlanean aritu eskaintza berezietako.

2.- Herri mailan haurrentzako eskaintza egonkortu eta haurrentzako komunitatean sortutako ekintzetan parte hartu

- Gabonetako eskaintza berezia
- Aste Santuko eskaintza berezia
- Udaleku irekiak

Deskribapena

Aurten haurren inguruan herrian zeuden zerbitzu zein elkarte ezberdinekin harremana izatea eta elkarlanean aritzea zen puntua nagusia eta ala egin da, batez ere urtero bezala eta orain arte bezala, haurrentzako eskaintza diren zerbitzu berezietan. Zerbitzu hauek, egonkortu eta begirale ikastaroan parte hartu duten begiraleen laguntzarekin, indarrak jarri dira kalitatea hobetzeko.

Egindakoa

Nahiz eta urtean zehar, eskaintza jarrai bat ez egon haurrentzat, urteko une berezietan eskaintza bereziak eskaintzen dira. Eskaintza hauek hurrengo ekintzetan banaturik egoten dira:

1. San Martin eguneko jolasak

Amezketako aste kulturean burutzen dira jolasak izaten dira, hain zuzen ere San Martin egunean. Bertan, haurrekin jolasak egin ziren eta egun honetan begirale eskolakok burutu zituzten lehenengo aldiz beraien jolasak. Haur asko azaldu ziren, urtero bezalaxe guraso elkartekoak haurrentzako bazkaria egiten dutelako.



2. Gabonetako eskaintza berezia

Gabonetan ekintza ezberdinak eskaini zitzaizkien haurrei, kasu honetan besteetan bezala begirale ikastarokoak suspertzailearekin batera antolatuak ziren. Eskaintza honen inguruko informazioa, "Gabonetako eskaintzaren" memorian dago.

3. Aste Santutako eskaintza berezia

Gabonetako eskaintzaren moduan, ekintza ezberdinez osatutako eskaintza eskaini zitzaien haurrei eta beste eskaintzan bezala, begirale ikastarokoek burutu zituzten. Informazio gehiago, "Aste Santutako eskaintzaren" memoria dago.

4. Maiatzeko ostirala

Kasu honetan, begirale ikastarokoek haurrei ostiral batean ekintza bat egiteko nahia sortu zitzaien eta hauek, suspertzaileari azaldu zieten. Baina baiezkoa adierazi baino lehenago udalean informatu zuen eta baiezko erantzutean, eskolarekin harremanetan jarri eta haurrei informazioa pasa zitzaien.

Bertan, sukaldaritza tailerra eta jolas kooperatiboak burutu zituzten, espero zituzten baina haur gehiago gerturatu ziren.

5. Zumadi eskolako ikasturte amaierako festa

Ikasturte amaieran, Zumadi eskolak guraso elkartekoen laguntzarekin eskolako festa antolatzen dute. Goizean jaialdia ospatzen da, eguerdian bazkaria eta arratsaldean, gazte taldekoek haurrentzako jolasak egin zituzten.

6. Udalekuak

Udaleku irekiko prozesuari hasiera emateko, haurren izen emateko epera ireki zen maiatzaren 14tik 25tera bitarte. Beraiekin batera, begirale zein koordinatzailearen izen ematea ireki zen, kasu honetan maiatzaren 17tik maiatzaren 31 bitarte.

	HAURRAK	BEGIRALEAK
APUNTATUTAKOAK	57	17
HAUTATUTAKOAK	57	5



IKASTURTEKO MEMORIA 2018

Kontuan hartuta, haur kopurua eta ratioak, eta nola ez, praktiketako begiraleak 3 izango zirela horren arabera hautatuak 5 pertsona izan ziren:

ADIN TARTEA	RATIOA (haur / begirale)	HAUR KOPURUA	BEGIRALE KOPURUA
2-3 URTE	7/1	14	2
4-8 URTE	9/1	26	3 (1 + 2 praktikak)
9-12 URTE	10/1	17	2 (1+1 praktikak)

Begiraleak hautatzerako orduan irizpide batzuk jarraitu ziren:

OINARRIA	PUNTUAKETA
Amezketarra izatea.	2
Begirale titulua edukitzea.	3
Begirale titulua EAEn aterata edukitzea.	3
Amezketako udaleku irekietan eskarmentua.	3
Udaleku itxi eta irekietako esperientzia.	2
Haurren heziketaren inguruko ikasketak bukatuak izatea.	2
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea.	1
EGA titulua.	2

Aurten koordinatzailea aukeratzeko ere irizpide ezarri batzuk dira eta honako hauek izan dira:

OINARRIA	PUNTUAKETA
Amezketarra izatea.	2
Zuzendari titulua edukitzea.	3
Amezketako udaleku irekietan eskarmentua.	3
Udaleku itxi eta irekietako esperientzia.	2
Haurren heziketaren inguruko ikasketak bukatuak izatea.	2
Haurren heziketaren inguruko ikasketak burutzen aritzea.	1



EGA titulua.	2
--------------	---

Behin udaletxeko administrariarekin eta bion arten begiraleen hautaketa burututa, begirale bilera ekainaren 13an egin zen eta bertan, begiraleei aurten programaketa nola burutu behar zen azaldu zitzaien. Horrek, aurten aldaketa handia ekarri die iaztik zentozen begiraleei, programaketa honetan detaille eta zorroztasuna eskatzen duen. Bilera horretan bertan taldeka banatu eta programaketa burutzen hasi ziren:

UZTAILA	2-3 URTE			
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
2	3	4	5	6
	Ezagutza jolasak	Kareetak margotu		SAN FERMINAK
9	10	11	12	13
	Koilareak eta pultserak	Pinturarekin esperimentatu		EUSKAL JAIK
16	17	18	19	20
	Tximeletaren eskulana	Buztinarekin esperimentatu		URAREN EGUNA
23	24	25	26	27
	Kometaren eskulana	Dantza		JAIALDIA

UZTAILA	4-8 URTE			
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
2	3	4	5	6
	Ezagutza jolasak	Eskulanak		SAN FERMINAK
9	10	11	12	13
	Oka	Sukaldaritza		EUSKAL JAIK
16	17	18	19	20
	San Martin	Multikirolak		URAREN EGUNA
23	24	25	26	27



	Irteera	Altxorraren bila		JAIALDIA
--	---------	------------------	--	-----------------

UZTAILA	9-12 URTE			
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
2	3	4	5	6
	Joku kooperatiboak	Eskulanak		SAN FERMINAK
9	10	11	12	13
	Oka	Paxaka Torneoa		EUSKAL JAIAK
16	17	18	19	20
	Sukaldaritza	Irlara irteera		URAREN EGUNA
23	24	25	26	27
	Jaialdiaren prestaketa	San Martin		JAIALDIA

Behin programaketa prestatuta, ekainaren 15ean programaketa aurkeztu zitzaizen gurasoei. Bilera horretan, gurasoei aurtengo berrikuntzak azaldu zitzaizkien, hots, hamaiketako teknika, lehen eguneko kamiseten koloreak, blog-a eta abisuak korreo elektroniko bidez. Hau dena aurrera eraman baino lehen, gurasoen iritzia entzun zen eta hauek inongo arazorik ezarri ez zutenen, aurrea egitea pentsatu zen.

Aipatzeko da aurten iaz bezala, koordinatzailea kontratatu dela udalekutako. Bere funtzioa, udalekuetan zentratu eta bertako, begirale, hartzaile eta gurasoen beharrak asetzeaz gain, udalekuaren funtzionamendua bermatzea da (materiala erosi, gurasoei oharrak banatu, begiraleei lagundu, etab.)

Honetaz gain, aurten Amezketan begirale ikastaroa burutu denez udala prest zegoen praktikak egiteko aukera eskaintzea, eta hori kontuan hartuta eta zenbat haur izen eman zuten ikustean, hiru begirale praktiketara hartzea erabaki zen.



Gurasoek zer diote?

Hasieratik gurasoei hiru ebaluazio pasatzea zaizkie, Gabonetan, Aste Santutan eta Udarari. Gabonetako eta Aste Santutako ebaluazioa oso ona izan zen, lehen bien eskaintzaren ebaluazioak “Gabonetako eta Aste Santutako eskaintzetako” memorian daude.

Jarrain, udalekuetan jaso diren balorazioak zehazten dira, 13 galdetegi jaso dira eta bueltan honako hauek izan dira emaitzak:

		1	2	3	4	5
1	Ludoteka orokorrean ebaluatu				8	4
2	Txikien programaketa ebaluatu				5	
3	Ertainen programaketa ebaluatu				3	3
4	Handien programaketa ebaluatu				3	4
5	Gurasoen bilera ebaluatu			1	9	2
6	Oharren metodologia berria ebaluatu	2	1		6	4
7	Aurtengo berrikuntzak ebaluatu (hamaiketakoak, kamisetak)	1	1		4	7
8	Zuen seme-alaben begiralea ebaluatu				7	6
9	Koordinatzailea ebaluatu				8	5

Galdetegian ere, hainbat atal zauden galdera irekiekin eta bertan honako gauzak aipatzen zituzten:

1. Txikien programaketaren inguruan iritzia eman:
 - “Lehenengo urteko ludoteka baino informazio gehiagorekin eta antolatua.”
 - “Orokorrean ondo dago programaketa.”
 - “Haurra gustura joan da, lehen astean ezin joan arren, lehen egunetik integratuta sentitu da, begiraleekin gustua eta taldean ere.”
 - “Gustura ibili da haurra.”
2. Txikien programaketan inguruan gehien eta gutxien gustatutakoa:
 - “Gustukoa: egunero jakin dugula hurrek zer egin duten. Gutxien: Ezer.”
 - “Ez dago gustatzen ez zaidanik, ondo dago.”
 - “Gehien: Begiraleek erakutsitako profesionaltasuna. Gutxien: udara izan da, gelan denbora gehiegi pasatuko errezeloa.”
3. Ertainen programaketaren inguruan iritzia eman:
 - “Oso gustura ibili da.”



- "Hau ere ondo dago."
 - "Gustura ibili da."
 - "Umea pozik ibili da, oso gustura."
 - "Orokorrean ekintzak ondo egon dira, haurra gustura ibili da."
4. Ertainen programaketan inguruan gehien eta gutxien gustatutakoa:
- "Gehien pistinako irteera."
 - "Ez zait gustatzen ez zaidanik, ondo daude."
 - "Egindako ekintzak gustura ibili da. Gutxien: hamaiketakoa."
 - "Pistina gehien, ez dakit gutxien zer."
 - "Gehien: pistinara joatea eta mikroondasen pastelak egitea."
 - "Pistinako irteera ondo egon da, nahiz eta hasiera batean gurasoen kezka izan."
5. Handien programaketaren inguruan iritzia eman:
- "Oso gustura ibili da".
 - "Nire ustean oso ekintza ezberdinak egin dituzte, horrela errepikatzeko aukerarik ez dute izan eta minotoreen lanari buruz borobila izan delakoan nago. Segi horrela!"
 - "Gustura ibili da. Ekintzak gustatu zaizkio."
 - "Oso gustura ibili da haurra."
 - "Oso ongi pasatu dut, monitoreak ere oso jatorrak."
 - "Ekintzak oso gustukoak izan ditu haurrak eta mota ezberdinetako ekintza egin dituzte".
6. Handien programaketan inguruan gehien eta gutxien gustatutakoa:
- "Paxaka, bizikletaz oso ondo, irla irteera ere, ..."
 - "Gehien: Irlako irteera".
 - "Hamaiketakoaren sistema".
 - "Ekintza guztietan oso gustura egon da. Aukera egitekotan Irla eta Paxaka".
 - "Motxa egin zaiola esan du, beraz, ondo pasa duen seinale":
 - "Gehien: Irla irteera, Gutxien: bizkotxoia egitea erre egin zitzaielako".
7. Guraso bilerako hobekuntzak:
- "Oso ondo azaldu zela dena esango nuke, baina akatsa gurasoen parte hartze eskasean dago (gero azalduaz, zalantzak tokiz kanpo).
 - "Atal guztiak ondo azalduak. Non elkartu, koloreak, hamaiketakoa, informazio kanalak, ... Oso ondo".
 - "Nik aurreko urtetan ematen zuten taldeen zerrenda bota dut faltan. Bestela, oso ondo".
8. Oharren metodologia berria ebaluatu:
- "Oharrak emailaz ondo iritsi zaizkit".
 - "Aukera guztiak eman dira norberak nahi zuen bezala jasotzeko informazioa, bikain!"



- "Oharrak korreoz bidaltzea oso ondo. Dударik bazenu berari idatzi eta erantzuna jaso dezu."
 - "Korreo elektronikoan baino, nahiago dut paperean. Edo whatsappeko taldea(k) egin da."
 - "Blogaren berri ez dugu izan!"
 - "Oharrak momentuan ikusten ditut, ondo informatuta egon naiz!"
 - "Nahiago dut paperean ematea oharrak. Papera badago!!!"
 - "Jakinarazpenak e-mailez egitea modu erosoa eta eraginkorra da. Gure kasuan, hasierako e-mailak ez genituen jaso, jakinarazi bezain pronto, jasotzen hasi ginen. Azken konpondu zen arazoa".
 - "Erosoa da."
 - "Garaian beharrezko informazioa geneukan."
9. Begiraleen inguruko iritziak:
- "Hurrekin egoten badaki, profesionaltasuna antzeman zaio. Gurasoei emandako harrera ere ona."
 - "Ume gustura bai begirale eta orokorrean. Guretzat oso garrantzitsua".
 - "Txintxoia eta jatorra".
 - "Oso gustura egon dira beraiekin, eta besteekin ere bai"-
 - "Atsegin eta jator egin dute bere lana eta umeak oso gustura sumatu dira".
 - "Ume bakoitza gustura geon da bere begiraleekin".
 - "Nahiz eta harreraren bakarrik ikusi, eta hurrek zein lasai egoten ziren, gustura perfektu".
10. Koordinatzaileen inguruko iritzial:
- "Pertsona arduraduna".
 - "Oso gertukoa egin zaigu. Bejondeizula Unai!!"
 - "Nire ustetan oso giro ona dago begiraleen artean eta koordinazioa aparta izan da"
 - "Ez dugu berarekin harremana izan, baina e-mailaz bideko komunikazioa guztia egokia izan da. Profesionaltasuna antzeman da."
11. Hurrengo urteari begira: hobekuntza, iritziak ...
- "Segi horrela!"
 - "Balorazio orria bukaeran pasatzea egokiagoa iruditzen zaigu. Dena bukatu ondoren".
 - "Kanpora bidaiarik ez, herrian. Hamaiaketakoa bakoitza nahi duena. Oharrak paperan".
 - "Agian taldean hobeto zehaztu. Hasieran zalantzan izan nituen 2 seme alabak zein talde zegokien."
 - "2018ko ludotekaren maila mantentzearekin nahikoa".
 - "Jarduera gehiago kale giroan egitea?"



Balorazioa

HELBURUA	BALORAZIOA
San Martin egunean jolasak egin.	Gazte Taldekoak burutu zituzten jolasak.
Gabonetako eskaintza berezia egin.	Begirale ikastaroa hasi berria zen eta proposamena luzatu zitzairen, beraiek bertako haurrentzako eskaintza egitea. Honela egin zuten eta oso ondo atera zen, gurasoak zein haurrak oso kontentu zeuden. Gainera bertako ekintzak, Guraso elkartekoekin batera adostutakoak izan ziren.
Aste Santutako eskaintza berazia egin.	Gabonetako eskaintzaren moduan, begirale ikastarokoan antolatu zituzten, Guraso elkartekoekin ideiak entzunaz.
Zumadi eskolako ikasturte amaierako festan jarduera bat egin.	Hasiera batean, honen asmoa begirale ikastarokoak burutzea zen, baina askoz ezin zuten Gazte Taldekoei luzatu zitzairen ideia eta azkenean, hauek burutu zuten. Oso ondo egin zen dena, aurretiaz hezitzailearekin batera programaketa txiki bat egin zen eta ondoren, aurrera eraman zen.
Udalekuak antolatu.	Maiatzaren erdialdean suspertzaileak antolatzen hasi zen. Horretarako, Curriculumak bidaltzeko epea ireki zen eta bai herrian zehar eta baita ere, Gipuzkoako Gazteak duen Udabizi atalean. Curriculumak jaso ondoren, puntuaketa taularen bidez begiraleak zein koordinatzailea aukeratu ziren. Behin aukeraketa egina, beraiekin bildu zen programaketa egiten hasteko eta ondoren, guraso bilera egin zen. Pauso hauek oso ondo egin ziren, begiraleak beraien taldeko programaketa burutu zuten eta ondoren, suspertzaileak eta koordinatzaileak programaketa oso egituratu zuten.
Begirale ikastaroan egingo dituzten ekintzak modu egokian bideratu.	Ekintzak antolatzeko garaian, begirale ikastarokoekin jarrai da harremanetan suspertzailea eta horren bidez, beraiek antolatu dituzte ekintzak.
Haur hezkuntza / Lehen Hezkuntzako haurren beharrak zein diren eguneratu.	Suspertzaile berria ez da asko zentratu HH eta LHko haurren beharengan. Atal hau, hurrengo ikasturtean heldu beharko dio.



DATORREN URTEAN...

Hurrengo ikasturtari begira, haurren eskaintzaren inguruan sakontzea egokia dela uste da, aurtengo ikasturtean suspertzailea berria zelako eta nerabe / gazteen eskaintzan zentratu delako. Hau dena, udaletxearekin aztertu beharko den beharra bat, orduan hori egin bitartean urteko eskaintzarekin jarraituko da.

2018/2019 IKASTURTEKO PROPOSAMENA: HAURREN ATEALA

- San Martin eguneko jolasak.
- Gabonetako eskaintza berezia.
- Aste Santutako eskaintza berezia.
- Zumadi eskolako ikasturte amaierako festan jarduera ezberdinak burutu.
- Udaleku irekian antolatu.
- HH/LH-ko haurrentzako beharrak aztertu eta eguneratu.

**NERABEEN ATALA**

12-14 urte bitartean

15-18 urte bitartean

Helburuak**1.- Nerabeei nerabezaroan gozatzeko aukera egonkortu eta zabaldu**

- Gaztelekua Amezketako eta inguruko herriko nerabeen topagune bihurtu.
- Suspertzailea nerabeentzako erreferente bilakatzea.
- Nerabeekin batera, balorazio saioak burutu, suspertzaileak eta hartzaileak baterako hobekuntzak bilatuz.

2.- Nerabeengan autonomia eta erantzukizuna landu.

- Gaztelekua zein bertako materiala denen artean ondo zaintzea.
- Gaztelekuko ekintzen erantzule izatea nerabeak.

3.- Konpromiso eta jarrera kritikoa bultzatu nerabeengan.

- Partaidetza kolektiborako sentimendua garatu Gaztelekuan burutzen diren ekintzen bitartez.
- Nerabeen aniztasuna kontuan harturik, gizartean parte hartzeko modu ezberdinak onartu.
- Beraien arteko erlazioa egonkortzen laguntzea.
- Iritzi ezberdinak entzuten jakitea.

4.- Herri mailako ekimenetan parte hartzen saiatu edo inplikazioa sustatu

- Nerabeak herriko ekimenetan parte hartzea bultzatzea.

Deskribapena

Ikasturte hasieran, aurreko urtean zegoen hezitzaileari lan berria atera eta Gaztelekua uztera beharturik ikusita, urrian beste hezitzaile bat hasi zen lanean. Honen helburua, 12-15 urte bitarteko nerabeekin finkotasuna bilatzea izan zen. Nahiz eta, 16-18 urte bitarteko gazteekin harremana lotzea eta beraien parte hartzea finkatzea ere izan da, ikasturte erdialdetik aurrera.



Egindakoa

12-15 urte

Nerabeekin azken urteotan Gaztelekuan erabili den dinamikarekin jarraitu da, hots, hileroko programaketa beraien eskuetan uzten zen, horretarako hileko taula bat pegatuta uzten zen paretan eta beraien betetzen zuten nahi zuten ekintza batekin. Hau kontuan hartuta, hezitzaileak beharrezko materiala erosten saiatzen zen. Erosketa hauek, Amezketa herrian egiten ziren eta ez zeuden gauzak herrian bertan, Tolosara jotzen zen.


Gaztelekuko ohiko eskaintzaz gain, Gabonetan, Aste Santutan eta Udararen eskaintzak bereziaz gozatzeko aukera izan dute nerabeek. Eskaintza berezi hautarako, nerabeen iritziak eta ideiak jasotzen ziren eta ondoren, bilera horietan jasotakoaren arabera ekintzak antolatzen dira. Gabonetako eta Aste Santutako eskaintzak ikasturtean zehar eginiko memoriatan jasota daude, ondoren udarako eskaintza berezia zehaztuko da:

Ekainean zehar bi bilera egin dira nerabeekin, lehenean ideia batzuk entzun ziren baina nerabe asko ez zeudenez bigarren bilera bat egitea proposatu zuten nerabeak eta bertan zehaztu diren ondorengo ekintzak:

<p>Uztailak 2, asteazkena</p>	<p>Uztailak 9, astelehena</p>	<p>Uztailak 18 -19</p>
<p>PAINTBALL</p>  <p>15.00-20.30 Prezioa: 20€</p>	<p>JAIBALL</p>  <p>15.00-20.15 Prezioa:15€</p>	<p>LEKEITIO</p>  <p>18.00-17.00 Gazte taldearekin Prezioa: 15€</p>
<p>Uztailak 20, ostirala</p>	<p>Uztailak 25-26-27</p>	
<p>FRONTENIS TXAPELKETA</p>  <p>16.30-19.30</p>	<p>BURUNTZUNTZIN</p> <p>10.00-13.00</p> <p>Prezioa:10€</p> 	

Ekintza gehienak bateratuak izan dira, hala nola, Lekeitioko irteera Gazte taldearentzat bideratua egon da. Ekintza guztiak kontuan harturik, 28 nerabe zein gazte parte hartu dute. Datuak hurrengoak dira generoa eta adina kontuan harturik:

	12-15 urte	16-19 urte
NESKAK	12	2
MUTILAK	13	1



Azkenik, ikasturteko bigarren zatian larunbatetan ekintza baten bat egiteko proposamena luzatu zutenez eta hori kontuan hartuta, larunbat batean Buruntzuntzinea mendi irteera egiteko aukera izan zen. Eta aurtengo berrikuntza bezala, 12-15 urte bitarteko nerabeak suspertzailearekin batera herriko Festa Batzordean parte hartu dute beraien ideiak emanez.

16-19 urte

Ikasturtea hasi eta iaz beraiekin hitz egindakoa egiten hasi ziren, hau da, herrirentzat ekintzak egiten hasi ziren, hala nola: San Martin egunen jolasak, Aste Kulturean zerbeza feria, Olentzero jaitsiera, etab. Baina beraiek desadostasun handi bat zeukaten honen inguruan.



Udalak lokala eman zien, baina lokal horretan herriko beste eragile batzuk zeuden eta hori ikusita, udalak bertatik gauzak kanporatzea eskatu zieten besteei, baina urtea aurrera egin du eta egoera berdina da. Suspertzaileak maiztasun handiarekin hitz egin du gazteria zinegotziarekin honen inguruan.

Eguberri garaian, gazte taldea osatzen zuten hainbat gazteekin (batez ere mutilak), honen inguruan hitz egiteko bilera bat eskatu zuten eta beraien egoera azaldu zuten, hots, Gazte Taldea utziko zutela adierazi zuten. Hau entzutean, adostasun batera iritsi zen, ateak irekita utziko zirela beraien nahi zutenean berriz ere bueltatzeko.

Hau dena kontuan hartuta, oraingo honetan Gazte Taldea 5 gazteek osatzen dute eta horietatik 4, Amezketa udalak eta beraien eskatutako begirale ikastaroa burutu dute. Ikastaro honen inguruan, "begira ikastaroko memorian" adierazi da eta beraien buruturiko ekintzak, "Gabonetako eta Aste Santutako eskaintzaren memorian" aipatu dira.

Nerabeek zer diote?

Ikasturte honetan zehar, nerabeen gurasoei galdetegi bat pasa zaie Gabonetako eskaintza bereziaren ondoren. Honen inguruan, "Gabonetako eskaintzaren memorian" aipatzen da.

Ikasturtean zehar, nerabeekin hainbat ebaluazioa egin dira, hau da, Gabonen eta Aste Santuen ondoren hauen inguruan beraien memorian adierazten da. Ikasturte amaierakoa eta udarakoa, Buruntzuntzinen egiteko zen asmoa, baina denboraz larri ibiltzean bertan ekintza aunitz egin genituelako, bakarrik ahoz egiteko aukera izan genuen.

Adin guztiak elkarrekin egin genuen, eta bertan Gaztelekuko dinamikarekin oso gustura daudela adierazi zuten, baina agian hurrengo urteari begira orduan aldaketan egitea egokia zela adierazi zuten.

Balorazioa

HELBURUA	BALORAZIOA
Erabiltzaile berriei ongietorria egin.	Ikasturte hasiera guztietan bezala, aurtengoan ere DBH1eko nerabeei ongi etorria egin zaie.
Gaztelekuko ohiko dinamika egonkortu.	Hezitzaile berriak, beste urtetako Gaztelekuko dinamika mantentzen saiatu da, nahiz eta batzuetan nerabeen atzetik egon behar izan duen uneoro



	dinamika mantentzeko asmoz. Hurrengo ikasturteari begira, aldaketa bat egitea gustatuko litzaioke.
Gabonetan, Aste Santuetan eta Udan eskaintza bereziak antolatu.	Hiru aldi horietan, eskaintza berezia antolatu da. Aurretiaz aipaturik bezala, nerabeen iritzia entzun da antolatu dira.
Herriko pilota txapelketa antolatu.	Aurten herriko pilota txapelketa, Gazte Taldeak antolatu du. Baina Guraso Elkartekoek oso berandu abisatu die, honen antolakuntzaren inguruan.
Nerabeen behar berrietara egokitu.	Nerabeen beharrak entzun eta ikusi dira, batez ere ikasturte amaiera honetan. Gauetan Gaztelekura sartu baitira, eta honen inguruan beraiekin hitz egin da eta beraien, momentuko presa duen beharra lokala izatea da, orduan gai honi ikasturte hasieran heldu behar zaio.
Herriko festetako programan nerabeen presentzia bultzatu.	Nerabeekin, festa batzordeetara joan gara, beraien ideiak azaldu dituzte, baina hasiera batean ideia horiek Gaztelekuan landu egin dira.

DATORREN URTEAN

Hurrengo ikasturteari begira, bi adin tarte nabarmentzea ikusten da. Lehen taldea, 12-15 urte bitartekoan izango dira eta bigarrena, 16-19 urte bitartekoak.

2018/2019 IKASTURTEKO PROPOSAMENA: NERABEEN ATALA

- Erabiltzaile berriei ongietorria egin.
- Gazteleku berria bueltatu eta ohiko dinamikari buelta bat eman.
- Gabonetan, Aste Santutan eta Udan eskaintza bereziak antolatu.
- Nerabeen behar berrietara egokitu.
- Herriko festetan nerabeen presentzia eduki.
- Hezkuntza formaleko erakundeekin, harremana sortu.
- 16-18 urte bitartekoei zuzendurik Zaletu proiektuan parte hartu.

**GAZTEEN ATALA**

18-30 urte bitartean

Helburuak**1.- Gazte taldearen sorkuntza**

- Gazte Taldea sortu da, herriko beharrei erantzunak emateko.
- Ekintzen bidez lokala lortu.

2.- Begirale ikastaroa

- Begirale ikastaroa burutu

Egindakoa

Gazte taldeari dagokionez, irailean martxan jarri zen. Beraiek, buru belarri aritu ziren ekintzak egiten udalarekin adostutako eran eta truke, anbulatorioan gainen dagoen lokala eman zieten. Baina bertan arazo txiki bat dago, herrian dauden elkarte ezberdinak bertan dituztela beraien materiala eta horregatik, suspertzailea gazteria zinegotziarekin jarri da harremanetan honen inguruan. Udalak elkarte edo talde hauei abisua behin baino gehiagotan eman die eta gauza berdina jarraitzen du ikasturte amaieran.

Gazte taldearen egoerari dagokionez, honen inguruan "Iraila – Abendua" memorian azaltzen da. Orain beraien egoera, bertan beheran dago, gogo gabe daudelako. Beraien egoerari buelta emateko, Buruntzuntzinen bi gau pasatzen ari garela honen inguruan hitz egingo da.

Begirale ikastaroari dagokionez, 2017-2018 ikasturtean burutu dute arlo teorikoa Amezketan, eta arlo praktikoa bakoitzak ahal duen tokian burutu dituzte. Honen inguruan "Begirale ikastaroa" memoria azaltzen da.

DATORREN URTEAN



2018/2019 IKASTURTEKO PROPOSAMENA: NERABEEN ATALA

- Gazte Taldeari irtenbide berria bat eman.

2.- PSZko GARAPENA ETA BALORAZIO OROKORRA:

1. 0-30 URTE BITARTEKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEI ARRETA ESKAINTZA JARRAIA

ALDERDI POSITIBIOAK

- Haurren eskaintza egonkortuta dago eta hurrengo urteari begira, berdin jarraitzea aurreikusten da.
- Nerabeen atala oso ondo ari da funtzionatzen, parte hartzaile asko daude (generoa eta adina kontuan hartuta).
- Hezitzaile eta nerabeen arteko harremana oso ona da.

ERRONKAK

- 16-18 urte bitarteko Zaletu proiektuan parte hartu.
- Haurren atala orain arte bezala mantendu.
- Nerabeen atalean, egunerokotasuneko dinamika berri eta hori kontuan izanda, ekintza berriak sortu.

2. HAUR, NERABE ETA GAZTEEI ARRETA ESKAINTZEN DIETEN PROFESIONAL, HELDU ETA UDAL LANGILEEKIN KOORDINAZIOA - SISTEMA

ALDERDI POSITIBIOAK

- PSZ eta Guraso Elkartearen arteko elkarlana burutu da.
- Zinegotziarekin bilerak sistematizatzen jarraitu da.

ERRONKAK

- Guraso Elkartekoekin koordinazioan lan egiten jarraitu.
- Alegiako institutuarekin harramantzen hasi.
- Alegiako Gaztelekuko hezitzailearekin harramantzen hasi.



3. KOMUNITATEAREN ZATI, PARTAIDE ETA DINAMIZATZAILE IZAN NAHI DUEN ZERBITZUTA:

ALDERDI POSITIBIOAK

- laz bezala, herriko beste hainbat eragile Gaztelekuarekin harremanetan jarri dira zenbait ekintzetan parte hartzeko, beraz, herrian gero eta erreferente garrantzitsuagoa da Gaztelekua.
- 16-19 urte bitarteko gazteekin herriko hainbat ekintza burutu dituzte, hala nola, Gabonetako eta Aste Santutako eskaintza bereziak, San Martin eguneko jolasak, etab.

ERRONKAK

- Gaztelekua herriko erreferente garrantzitsua izateko pausoak ematen jarraitu.
- Gazte Taldeari irtenbide berria bat eman.